



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko irailaren 16a

89. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko baliatu ziren tauletako datuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- Galdera, Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko baliatu ziren behin-behineko taula makroekonomikoak igortzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko estimazioak eta simulazioak egiteko prozesuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko estimazioak eta simulazioak egiteko metodoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, jakiteko Nafarroako aurrekontu orokorretan aurreikusitako datu makroekonomikoetarik zein ez diren beteko 2009an. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko estimazioak eta simulazioak egiteko erabili eta aintzat hartu diren datu guztiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko estimazioa egiteko erabilitako diru-bilketak kontabilizatuko datuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernu zergatik ari den moteltzen enpresen BEZaren itzulketa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, BEZaren itzulketa aurreratua inguruko neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Osasun Sistema Publikoko Prestazioen Katalogoari eta Zerbitzuen Zorroari buruzko txosten berezia, Nafarroako Arartekoaren bulegoak egina (8. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko baliatu ziren tauletako datuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko baliatu ziren tauletako datuei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 19ko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko baliatu ziren tauletako datuei buruz (PES-156). Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna.

2009rako aurrekontua prestatzeko erabili ziren datu makroekonomikoak, 2008ko irailean argitaratu zirenak, honakoak dira:

BPG erreala	% 1,10
Deflaktorea	% 3,40
BPG nominala	% 4,50
Enplegua	% 0,00

Iruñean, 2009ko ekainaren 22an

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko baliatu ziren behin-behineko taula makroekonomikoak igortzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko baliatu ziren behin-behineko taula makroekonomikoak igortzeari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 19ko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko baliatu ziren behin-behineko taula makroekonomikoei buruz (PES-157). Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna.

2009rako aurrekontua prestatzeko erabili ziren datu makroekonomikoak, 2008ko irailean argitaratu zirenak, honakoak dira:

BPG erreala	% 1,10
Deflaktorea	% 3,40
BPG nominala	% 4,50
Enplegua	% 0,00

Iruñean, 2009ko ekainaren 22an

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko estimazioak eta simulazioak egiteko prozesuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko estimazioak eta simulazioak egiteko prozesuari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 19ko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko kalkuluak eta simulazioak egiteko prozesuari buruz (PES-158). Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna.

Tributu bidezko diru-sarrereren kalkuluak eta simulazioak egiteko prozesua tributuen diru-bilke-

tari buruzko magnitude batzuei honakoak aplikatzean datza:

- Parametro eta magnitude makroekonomiko orokorrak
- Berariazko parametro eta magnitude sektorialak
- Urteko eta aurreko urteetako tributu bidezko diru-bilketaren joerak.
- Programa informatikoen bitartez simulazioak egitea, proposaturiko neurri fiskalak aplikatuz.

Kalkulu eta simulazio horien emaitza 2009. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorreari buruzko Legean aurreikusitako diru-sarreretan jasota dago. Halaber, aurrekontu horien oroitidazkiak horri buruz eskura dagoen informazio zehatza jasotzen du. Orobat, tributuei buruzko legeen oroitidazki ekonomikoetan ere informazioa topa daiteke. Lege horiek guztiak Nafarroako Parlamentuak onetsiak dira.

Iruñean, 2009ko ekainaren 22an

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko estimazioak eta simulazioak egiteko metodoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko estimazioak eta simulazioak egiteko metodoari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 19ko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko kalkuluak eta simulazioak egiteko metodoari buruz (PES-159). Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna.

Tributu bidezko diru-sarrereren kalkuluak eta simulazioak egiteko erabilitako metodoa tributuen diru-bilketari buruzko magnitude batzuei honakoak aplikatzean datza:

- Parametro eta magnitude makroekonomiko orokorrak
- Berariazko parametro eta magnitude sektoria-lak
- Aurtengo urteko eta aurreko urteetako tributu bidezko diru-bilketaren joerak.
- Programa informatikoen bitartez simulazioak egitea, proposaturiko neurri fiskalak aplikatuz.

Kalkulu eta simulazio horien emaitza 2009. urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko

Legean aurreikusitako diru-sarreretan jasota dago. Halaber, aurrekontu horien oroitidazkiak horri buruz eskura dagoen informazio zehatza jasotzen du. Orobat, tributuei buruzko legeen oroitidazki ekonomikoetan ere informazioa topa daiteke. Lege horiek guztiak Nafarroako Parlamentuak onetsiak dira.

Iruñean, 2009ko ekainaren 22an

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, jakiteko Nafarroako aurrekontu orokorretan aurreikusitako datu makroekonomikoetarik zein ez diren beteko 2009an.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du jakiteko Nafarroako aurrekontu orokorretan aurreikusitako datu makroekonomikoetarik zein ez diren beteko 2009an.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 19ko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du jakiteko Nafarroako aurrekontu orokorretan aurreikusitako datu makroekonomikoetarik zein ez diren beteko 2009an (PES-160). Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna.

Krisi ekonomikoaren bortizkeria eta gertatzen ari diren aldaketak ikusita, goizegi da parametroen betetze-maila zehazteko. Nafarroako Gobernuak berrikuspen makroekonomikoak egiten ditu unean-unean eskura dauden datuekin.

Iruñean, 2009ko ekainaren 22an

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko estimazioak eta simulazioak egiteko erabili eta aintzat hartu diren datu guztiei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko estimazioak eta simulazioak egiteko erabili eta aintzat hartu diren datu guztiei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 19ko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak

galdera egin du Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko kalkuluak eta simulazioak egiteko erabili eta aintzat hartu diren datu guztiei buruz (PES-161). Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna.

2005etik 2008ra bitarteko urteetako amaierako diru-bilketari buruzko taulak igortzen ditugu, bai eta 2008ko abuztuko taula ere.

Iruñean, 2009ko ekainaren 22an

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

(Oharra: aipaturiko eranskina foru parlamentarien eskura dago 7-09/PES-00161 espedientean, ondoko web helbidean hain zuzen:

<http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/>

Galdera, Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko estimazioa egiteko erabilitako diru-bilketa kontabilizatuko datuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko estimazioa egiteko erabilitako diru-bilketa kontabilizatuko datuei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 19ko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak

galdera egin du Nafarroako aurrekontu orokorren proiektua prestatzeko kalkulua egitean erabilitako diru-bilketa kontabilizatuko datuei buruz (PES-162). Hona Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna.

2008ko abuztuko diru-bilketari buruzko taula igortzen dugu.

Iruñean, 2009ko ekainaren 22an

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

(Oharra: aipaturiko eranskina foru parlamentarien eskura dago 7-09/PES-00162 espedientean, ondoko web helbidean hain zuzen:

<http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/>

Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernua zergatik ari den moteltzen enpresen BEZaren itzulketa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du jakiteko ea Nafarroako Gobernua zergatik ari den moteltzen enpresen BEZaren itzulketa.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 19ko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin

du BEZaren itzulketari buruz (PES-166). Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernua ez da mantsotzen ari BEZaren hileko itzulketak. Aitzitik, Nafarroako Gobernua BEZaren hileko eta urteko itzulketen erritmoa biziagotu egin du, aurreko urtearekin alderatuta. Izan ere, BEZaren urteko itzulketetan, itzultitakoaren ehunekoa, eskatutakoaren gainean kalkulatu, % 82,7 da ekainaren 10ean. Joan den urtean, egun berean, itzultitakoak % 73,7 egiten zuen eskatutakoaren gainean.

Iruñean, 2009ko ekainaren 22an

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

Galdera, BEZaren itzulketa aurreratuaren inguruko neurriei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du BEZaren itzulketa aurreratuaren inguruko neurriei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2009ko maiatzaren 19ko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2009ko ekainaren 25ean

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du BEZaren hileko itzulketei buruz (PES-167). Hona hemen Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren erantzuna:

1. 2009ko ekainaren 10ean, 997 enpresa daude BEZaren hileko itzulketaren Erregistroan izena emanda.

2. 2009ko ekainaren 10ean, hileko 2.105 itzulketa eskatu dira. Horietatik, 1.418 itzuli dira. Itzulketa guztiak hilabete batetik eta hiru hilabete bitarteko epean gauzatu dira. Legez itzultzeko gehieneko epea, berriz, sei hilekoa da.

3. 2009ko ekainaren 10ean, hileko deklarazioetan itzultzekoak ziren 120,6 milioi euro eskatu dira. Horietatik, 74,7 milioi euro itzuli dira. Itzulketa guztiak hilabete batetik eta hiru hilabete bitarteko epean gauzatu dira. Legez itzultzeko gehieneko epea, berriz, sei hilekoa da.

Iruñean, 2009ko ekainaren 22an

Bigarren lehendakariorde eta Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Álvaro Miranda Simavilla

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Osasun Sistema Publikoko Prestazioen Katalogoari eta Zerbitzuen Zorroari buruzko txosten berezia, Nafarroako Arartekoaren bulegoak egina.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko irailaren 7an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea Nafarroako Arartekoaren bulegoak eginiko hurrengo txostenaren berri izan duela: "Nafarroako Osasun Sistema Publikoko Prestazioen Katalogoari eta Zerbitzuen Zorroari buruzko txosten berezia"

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Txostenaren azalpena Foru Araubideko Batzordearen bilkura batean eginen dela xedatzea

Iruñean, 2009ko irailaren 7an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Nafarroako Osasun Sistema Publikoko Prestazioen Katalogoari eta Zerbitzuen Zorroari buruzko txosten berezia, Nafarroako Arartekoaren bulegoak egina

AURKIBIDEA

- I. Legezko gaikuntza.
- II. Txostenaren justifikazioa eta xedea.
- III. Osasun prestazioak, prestazioen katalogoa eta zerbitzuen zorroa: oinarritzko kontzeptuak
- IV. Katalogoko osasun prestazioetarako eskubidearen titularrak
- V. Osasun prestazioetarako eskubidearen norainokoa.
- VI. Zerbitzuen zorroaren esparru berekia.
 1. Prestazio arruntak eta osagarriak: haien zenbatespena.
 2. Osasun prestazioen bermeak zehaztea: etorkizunean jarduteko esparru zabala.
- VII. Prestazioen katalogoa eta zerbitzuen zorroa Estatuko eta autonomia erkidegoetako legedian.
 1. Estatuko arauak.
 2. Autonomia erkidegoetako arauak.
- VIII. Nafarroako osasun prestazioen antolaketa.
 1. Ikuspegi orokorra.
 2. Osasun prestazioak arautzen dituzten foru arauen zerrenda, alderantzizko hurrenkera kronologikoan, alde kuantitatiboari eta kualitatiboari dagokienez.
- IX. Nafarroako osasun zerbitzuen zorroa prestatzeko aukera.
- X. Nafarroako osasun zerbitzuen zorroaren edukiak.
 1. Zerbitzuen Zorroaren eduki substantiboa.
 2. Zerbitzuen Zorroaren eduki substantiboaren bermeak.
 3. Eduki substantibo eta funtzional batzuen aipamen berezia.
 - A. Osasun laguntzaren unibertsaltasuna eta doakotasuna.
 - B. Osasun publikoa.
 - C. Laguntza soziosanitaria.
 - D. Zerbitzuen eta osasun prestazioen kalitatea.
- XI. Txosten bereziaren zirriborroari Osasun Departamentuak aurkeztutako alegazioak.
- XII. Ondorioak eta iradokizuna.
 1. Ondorioak
 2. Iradokizuna.

I. LEGEZKO GAIKUNTZA.

Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legeko 32.6 artikulua araber, egitateen garrantziak horretarako bide ematen duenean, Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoak ezohiko txosten bat edo txosten monografiko bat, txosten berezia ere esaten zaiona, aurkeztu ahal dio Nafarroako Parlamentuari.

Halaber, 16. c) artikuluan, ahalmena ematen zaio Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari “Legediaren hutsuneak ikusarazi eta gomendioak emateko, administrazioaren jarduna eta zerbitzu publikoak behar bezain objektiboak izan daitezen eta herritarren eskubideak modu eraginkorren berma daitezen”. Gomendio horiek parlamentuari eta erakundearen ikuskeraren esparruaren menpeko edozein entitate publikori –eta horietako bat Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa dazuzendu ahal dio dizkio.

Bestalde, foru lege bereko 17. artikulua eskumena ematen dio Nafarroako Foru Komunitateko Arartekoari, besteak beste, organo eta zerbitzu eskudunekin lan eginez, konponbide egokien bilatzeko pertsonen interes legitimoak defendatze aldera.

Aipatu lege-agindu horien esparruan, erakunde honek bultzatu du txosten bat egin dadin Nafarroako Osasun Administrazioak eskaintzen dituen osasun prestazioei buruz eta Nafarroako Osasun Sistema Publikoaren Prestazioen Katalogoa eta Zerbitzuen Zorroa arau batez egoki erregulatzeko aukerari buruz.

II. TXOSTENAREN JUSTIFIKAZIOA ETA XEDEA.

Espainiako Konstituzioaren 43.1 artikulua osasunaren babeserako eskubidea aitortzen du. Eskubide hori, izan ere, pertsona guztiei aitortzen die, herritarren diren aldetik. Horrenbestez, loturik ez du ziurtapenaren ideiarekin. Konstituzioaren agindua estatu mailan garatzeko, Osasun Sistema Nazionalaren kohesioari eta kalitateari buruzko maiatzaren 28ko 16/2003 Legeak, 7.1 artikuluan, Osasun Sistema Nazionalako Prestazioen Katalogoa ezarri zuen. Haren helburua da arreta maila egokiarekin arreta integrala eta jarraitua emateko oinarriko baldintzak eta baldintza komunak bermatzea; aldi berean, katalogo komunak hartuko dituen mailak edo sektoreak zehazten ditu. Legeko 8. artikulua ezartzen du katalogoko osasun prestazioak zerbitzu komunaren bitartez gauzatuko direla, eta hori errege dekretu bidez onetsiko dela.

Bada, Nazioko Gobernuak bere betebeharrak bete du, eta horretarako Osasun Sistema Nazionalako Zerbitzu Komunaren Zorroa ezarri zuen irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuaren bitartez; halaber, hura gaurkotzeko prozedura ezarri zuen. Erregelamendu gisako arau horrek oinarriko izaera dauka eta osasun sistema publikoak herritarrei eskaini beharreko prestazioak zehazten ditu. Hartara, honakoak ezartzen ditu: osasun publikoaren osasun prestazioak, oinarriko osasun laguntza, laguntza espezializatua, larrialdietako laguntza, farmazia-laguntza, laguntza ortoprosi-ko, dietetika-produktuena eta osasun garraioa.

Errege Dekretuak ezartzen du zerbitzu komunaren zorroan sartzen diren zerbitzuak eta prestazioa oinarrikoetatik eta gutxienez hartuko direla, eta autonomia erkidegoek, beren eskumenen esparruan, zerbitzuen zorroak onetsi ahal dituztela. Haietan, gutxienez ere, Osasun Sistema Nazionalako zerbitzu komunaren zorroa bildu behar da. Ezartzen du, halaber, autonomia erkidegoek beren zerbitzuen zorroetan, zerbitzu komunaren zorroan jasotzen ez diren zerbitzuen osagarriak –teknikak, teknologiak edo prozedurak– jaso ahal dituztela. Horretarako behar diren baliabide gehigarriak ezarriko dituzte.

Erakunde honek, lanean darabiltzan urteetan metatutako esperientzian oinarrituta, egiaztatu du osasun prestazioei dagokien guztiak garrantzi handiena duela herritarrentzat. Izan ere, herritarrek osasun laguntza osoa eskatzen dute, berandutxerik gabea eta ahal den kalitate handienekoa, laguntza-tekniketan eta diagnosirako eta terapiarako prozeduretan etengabe gertatzen diren aurrerapenen arabera; izan ere, haien gorenko balioa duena dago jokoan: osasuna eta osotasun fisikoa.

Testuinguru honetan, eta ikusita Nafarroan osasun prestazioen arloan indarra duen araupe-tzea, txosten honen xedea da adieraztea nolako dispersioa, desfaseak eta gabeziak atzematen diren osasun prestazioei buruzko arauetan; eta haiei konponbidea emateko iradokizun batzuk egiten ditugu, arau-multzo bakarra izan ahal dezagun, eguneratua eta guztiz egokitu –alde kuantitatibotik eta kualitatibotik– Nafarroako osasun administrazioak Nafarroan bizi diren herritarrei bermatu behar dizkien osasun prestazioen mailari

III. OSASUN PRESTAZIOAK, PRESTAZIOEN KATALOGOA ETA ZERBITZUEN ZORROA: OINARRIZKO KONTZEPTUAK

Espainiako Konstituzioaren 43. artikuluan jasotako osasuna babesteko eskubidea estatu soziala eratzen duten prestazio-eskubide tipiko baten

gisara aurkezten da; laguntza-jarduera bat eta osasun- eta laguntza-prestazioa direla-eta antolaketatratamendu bakarra exijitzen duen eskubidea, zeinak, era berean, osasun publikoaren prebentzi-orako eta babeserako, eta herritarren hezkuntza sanitariorako, behar adinako araubide bat bermatzea eskatzen duen. Azken batean, botere publikoak konprometitzen ditu legeak egitera, hain zuzen ere osasun-laguntzaren edukia eta norainokoa alderdi kuantitatibo eta kualitatiboetan finkatuz. Aipatu 43. artikulutik osasun laguntzaren unibertsalizazioa heldu da, bai eta herritar guztiek osasun-zerbitzu eta prestazioetarako sarbidean berdintasuna izatea, nahiz eta ez den prestazioen “quantum” jakin bat segurtatzen.

Osasun-prestazioei dagokienez, Espainiako Konstituzioko 43. artikulua azpian dagoen berdintasunaren printzipioa betetik geratzen da Estatu legegileak osasun-prestazio komun eta derri-gorrezkoen katalogo bat ezartzen duen momentutik, hain zuzen ere jende guztiarentzat eta doan nazioko lurraldean eman beharreko prestazioen katalogoa. Nolanahi ere, herritarrek osasuna babestua izateko Konstituziora eramandako eskubidea Osasun Sistema Publikoak uneoro bermatzen dituen osasun-prestazioen bitartez gauzatu da.

Osasun prestazioak prebentzioko, diagnosiko, terapiako, errehabilitazioko eta osasuna sustatzeko eta mantentzeko zerbitzuak edo zerbitzuen multzoa dira, biztanle orori eta, zehazki, herritarrei zuzenduak.

Osasun prestazioak Osasun Sistema Nazionalen “Osasun Prestazioen Katalogoa” deitutakoan aipatzen eta identifikatzen dira. Izan ere, katalogo horrek osasun laguntza emateko modalitateen definizioa, modua eta edukia ezartzen ditu. Osasun Prestazioen Katalogoak helburu du arreta integral eta jarraiturako eta osasun-laguntzaren maila egokirako baldintzak bermatzea. Azken batean, osasun prestazio bermatuak, horien barne direla osasun publikoaren prestazioak, oinarritzko laguntza eta laguntza espezializatua, laguntza soziosanitarioa, larrialdietako laguntza, farmazia-prestazioa, ortoprotesiak, dietetika-produktuak eta osasun garraioa.

Osasun Zerbitzuen Zorroak teknika, teknologia edo prozeduren multzo bat deskribatzen eta biltzen ditu. Halakotzat hartzen dira ezagutza eta esperimentazio zientifikoan oinarritutako metodoak, jarduerak eta baliabideak, zeinek katalogoan jasotako osasun prestazioak eraginkor egiten baitituzte. Zorroa gauzatzekoan, kontuan hartu behar dira terapien eraginkortasuna, efizientzia, eragin-garritasuna, segurtasuna eta baliagarritasuna, bai

eta laguntzarako abantailak eta aukerak, babes gutxiago duten edo arriskuan diren taldeen zainketa, premia sozialak, eta haien eragin ekonomikoa eta antolamenduzkoa ere. Zorroaren xedea da, horrenbestez, kalitate eta fidagarritasun tekniko eta zientifikoko maila jakin batzuk bermatzea Katalogoan bermaturiko osasun-prestazioetan.

Hala eta guztiz ere, batzuetan, ez da erraza osasun-prestazioen muga ezartzea, zehazteko horiek non bukatzen diren eta non hasten den Osasun Sistema Nazionalaren Kohesioaren eta Kalitatearen Legearen arabera “Zerbitzuen Zorroa” osatzen duten teknikak, teknologiak edo prozedurak. Izan ere, zerbitzu horien bidez katalogoko prestazioak gauzatu dira.

IV. KATALOGOKO OSASUN PRESTAZIOETARAKO ESKUBIDEAREN TITULARRAK

Osasunari buruzko Lege Orokorreko apirilaren 25eko 14/1986 Legeko lehenengo artikulua honako ezaugarriak ditu: “osasuna babestua izateko eta osasun-laguntzarako eskubidearen titularrak dira, eta, horrenbestez, Legeak ezartzen dituen eskubideez baliatzeko –bide administratiboan zein juridikozkoan– legitimaturik daude Espainiako eta atzerriko herritar guztiak, egoitza nazioko lurraldean dutenak”.

Aitorpen subjektibo hori Nafarroarako osatu behar da Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeko 3. artikulua edukiarekin. Foru lege hori maiatzaren 25eko Foru Legearen bitartez aldatu zen, eskubidea Nafarroako edozein udalengan bizi diren herritar guztien osasun laguntzara zabaltzen baitu, haien legezko egoera edo administrazio egoera edozein dela ere.

Aipatu legeak legitimatzen dituzte, beraz, espainiarrak eta Espainian egoitza duten atzerriarrak, edozein dela ere haien legezko egoera, lege horiek –estatuko oinarritzko legeak eta foru legeak– ezartzen dituzten eskubideez baliatzeko. Egoitza izatearen baldintza nahikoa da legitimazioa izateko, eta ez da, horrenbestez, berariazko beste titulurik behar.

Eskubidea autonomia da, eta horregatik herritarri dagokio, besterik gabe, alde batera utzita aseguru-sistema publikoren batean afiliatuta dagoen edo ez dagoen; eta pertsonala da, ez baita heldu familia edo gizarte baldintza jakin batetik. Hori dela eta, adingabeak ere eskubide horien zuzeneko titularrak dira. Horrenbestez, auzia beste norabait eraman behar da, zehazteko eskubide horiek zein diren. Eta hor sartzen da osasun prestazioak arautzen dituzten arauak, “quantum” bat mugatzen dutelako; hau da, finkatzen dute osasu-

na babesteko eta osasun-laguntzarako eskubidearen eduki efektiboa, eta, aldi berean, finkatzen dituzte prestazioak jasotzeko bermeak eta haien kalitate-mailak.

Zerbitzu Komunen Zorroak, horrenbestez, guztiei berdin-berdin bermatzen zaizkien osasun-prestazioen gutxieneko edukia mugatzen du. Zerbitzu Komunen Zorroan zehaztutako osasun prestazioetarako sarbidea, horrenbestez, segurtatuta dago, alde batera utzita erabiltzaileak edo gaixoak une jakin bakoitzean nazioko lurraldeko zein lurraldeetan dauden. Herritarrek, izan ere, sarbidea dute, berdintasun efektiboko baldintzetan, Zerbitzu Komunen Zorroan, betiere horretarako agindu kliniko edo sanitario bat dagoenean, eta alde batera utzita bizi diren esparru geografikoan teknika, teknologia edo prozedura jakin bat eskaintzen den. Beren esparru geografikoan Zerbitzu Komunen Zorroan aurreikusitako teknika, teknologia edo prozeduraren bat eskaintzerik ez duten osasun zerbitzu autonomikoek behar diren bideak ezarri beharko dituzte halakoak behar dituzten erabiltzaileak haiek eskaintzen dizuten zentro edo zerbitzuetara bideratzeko, betiere kasuan kasuko osasun zerbitzu autonomikoarekin koordinatuta.

V. OSASUN PRESTAZIOETARAKO ESKUBIDEAREN NORAINOKOA.

Osasun sistema publikoaren funtsezko printzipioetako bat da kalitate handieneko prestazioetara eta prestazio ahal den zabalenera sarbide unibertsal eta ekitatiboa bermatzea. Alabaina, eskubide hori ez da iristen unean-unean indarrean dauden katalogo eta zerbitzuen zorroetan sarturik ez dauden osasun prestazioak jasotzera, ez eta lanbide medikoaren "lex artis" delakoaren aurkako tekniken edo prozeduren bitartezko prestazioak ere. Hala ezarri zen, argi eta garbi, Konstituzio Auzitegiko urriaren 28ko 166/1996 epaian.

Eskubidea ezin daiteke zabaldu, ezta ere, teknika aurreratuenen araberako osasun laguntza exijitzera edo lortzera (Nafarroako Auzitegi Nagusiaren 2004ko ekainaren 28ko epaia-JUR 1974), eta ez ditu barne biltzen, ezta ere, Osasun Sistema Nazionalan eskuragarri ez daudenak, nahiz eta herrialde aurreratuagoetan halakoak egon (Auzitegi Gorenaren 1995eko abenduaren 21eko epaia -RJ 3183-). Hala eta guztiz ere, kontuan hartu beharra dago Europako Erkidegoetako Auzitegiaren 2001eko uztailaren 12ko epaia. Izan ere, haren bidez onartzen da Europar Batasuneko kidea den beste estatu batean tratamendua hartzea, baldin eta jatorrizko estatuko osasun sistema publikoak halako tratamendurik izan ez baina delako tratamendua ohikotzat jotzen bada nazioartean medi-

kuntzaren lanbidean, edo jatorrizko herrialdean tratamendua gaixoari behar den epean ematerik ez dagoenean. Halakoetan, prestazioa egiten duen estatuak eskubidea du prestazioa jaso duen herritarrek bizitokia duen herrialdeak dagokion dirua ordaintzeko.

VI. ZERBITZUEN ZORROEN ESPARRU BEREKIA.

1. PRESTAZIO ARRUNTAK ETA OSAGARRIAK: HAIEN ZENBATESPENA.

Zerbitzuen Zorroaren egitekoa da teknika, teknologia edo prozeduren multzo bat jasotzea. Hala-kotzat hartzen dira ezagutza eta esperimendazio zientifikoan oinarritutako metodoak, jarduerak eta baliabideak, zeinek osasun prestazioak eraginkor egiten baitituzte. Prestazio horiek Espainiako lurraldean egoitza duten guztientzat bermatu beharko dira, eta, halaber, behar diren oinarriak ezarri beharko dira prestazioak etengabe gaurkatzeko. Hori, betiere, autonomia erkidegoetako osasun administrazioen eta Osasun eta Kontsumo Ministerioaren ekimenez egiten da. Horrenbestez, Prestazioen Katalogoa ere biltzen du.

Bestalde, autonomia erkidegoek, beren esku-menen esparruan, beren zerbitzuen zorroak onetsi beharko dituzte, eta, gutxienez ere, Osasun Sistema Nazionalako Zerbitzu Komunen Zorroa jaso beharko dute. Izan ere, zorro hori, dakigun bezala, Espainiako lurraldean egoitza duten guztiei bermatzen zaie. Gainera, beren zerbitzuen zorroetan zerbitzu komunak jasotzen ez diren zerbitzuen osagarriak –teknikak, teknologiak eta prozedurak– sartu ahalko dituzte: "prestazio osagarriak" deitutakoak dira horiek. Horretarako, behar diren baliabide gehigarriak ezarri beharko dituzte. Horrenbestez, Prestazioen Katalogoa autonomia erkidegorako zabaldu ahalko dute.

2. OSASUN PRESTAZIOEN BERMEAK ZEHAZTEA: ETORKIZUNEAN JARDUTEKO ESPARRU ZABALA.

Joan den mendeko azken bi hamarkadetan, osasun administrazioek –estatukoak zein autonomikoek– alderdi kuantitatiboan egin dituzte beren ahalegin guztiak, hau da, osasun-prestazio publikoen katalogoan osasun- eta laguntza-baliabide jakin batzuk ezartzean. Hala eta guztiz ere, hamarkada honen azken urteetan gaudela eta etorkizunari begira, ezinbestekoa da alde kualitatiboari erreparatzea, eta arreta jartzea hartzailaengan –erabiltzaileengan– baliabideetan baino gehiago, zeren eta orain herritarrek eskatzen dutena baita Osasun Zerbitzuen Katalogoan eta Zorro-

an dauden zerbitzuak eta prestazioak –zeinen zabaltasuna inork zalantzan jartzen ez duen– ematea behar diren kalitate tekniko eta administratiboarekin, fidagarritasun zientifikoarekin, segurtasunarekin, datu pertsonalen babesarekin, efizientziarekin eta lastertasunarekin. Izan ere, XXI. mendean sarturik gaudela, gure estatu sozialaren eraginkortasunak botere publikoei eta osasun-administrazioei eskatzen die, ez soilik prestazio kopuru jakin bat, baizik eta behar adinako kalitatea bermatzea eman beharreko prestazioetan eta zerbitzuetan. Beraz, osasun administrazio on baten eginbeharra –eta aldi berean herritarraren eskubidea– da zerbitzuak kudeatzea eta prestazioak ematea behar adinako kalitatearekin, prozedurazko aldean ez ezik, alde materialean ere. Kontua da egiturak modernizatzea, diagnosirako eta terapiarako metodoak antolatu eta gaurkotzea; eta herritarrei zerbitzuak ematen dizkiona den aldetik, kalitate progresiboko eredu bat ezartzea.

Estatuaren oinarrizko legediak, XXI. mendearen lehenengo hamarkadan agertutakoak, herritarren exijentzia horiek aintzat hartu ditu eta guztiz bere egin, eta osasun administrazio arduradunei eskatzen die osasun prestazioak behar diren bermeekin ematea.

Izan ere, estatuko legegileak Osasun Sistema Nazionalaren Kohesioaren eta Kalitatearen Legeko 23. eta 29. artikulua erabili ditu osasun prestazioen inguruko bermeei buruzko aurreikuspen jakin batzuk arautzeko. Horretarako, erabilerraztasunari, mugikortasunari, denborari, informazioari, segurtasunari eta kalitateari buruzko bermeak aipatzen ditu. Kalitatearen bermeei dagokienez, aurreikusten du aldizka auditoria batzuk egitea, eta, gainera, honakoak aipatzen ditu: sendagilea libreki hautatzea, bigarren iritzia, banakako gelak pixkanaka jartzen joatea, minusbaliatuentzako erabilerraztasuna eta erreferentziako zerbitzuak.

Bestalde, seigarren kapituluaren kalitatearen arloari buruzko zenbait ekintza diseinatzen ditu. Azpiegitura tekniko-juridiko bat badu osasun sistemaren prestazioetan eta zerbitzuetan kalitatea bermatzeko edo errazteko. Osasun sistemaren azpiegituran kalitate eta segurtasun arauak erabiliko dira, bai eta adierazleak, praktika kliniko eta asistentzialari buruzko gidak eta praktika onen eta gertakarien erregistroak ere. Neurri berean, eta kalitatearen elementu erabakigarria eta funtsezkoa baita, kapitulu zabala eskaintzen die osasun arloko profesionalari, eta autonomia erkidegoek haien kualifikazio profesionalari buruz (prestakuntza eta gaikuntza teknikoak) eta eginkizunak betetzeko estatus egokiari buruz ezarri beharreko neurrietan zentratzen da.

Paraleloki, Osasun Sistema Nazionalaren Kalitatearen Agentzia eta Osasun Sistema Nazionalaren Behatokia sortzea aurreikusten du. Bi ente horiek Osasun eta Kontsumo Ministerioaren menpean egon behar dira.

Azkenik, osasunaren arloko ikerketa aipatzen du, osasun sistemaren kalitatearako funtsezko baldintza gisa. Izan ere, Estatuak ikerketa zientifikoa eta teknikoa sustatzeko eta haren koordinazio orokorra egiteko duen eskumena erabiliz (Espainiako Konstituzioko 149.1.15.a artikulua), legegileak IV. kapituluaren erabiltzen du Osasun Sistema Nazionalako ikerketa-jarduera antolatzeko, eta, zehazki, Estatuaren Administrazioaren organo eskudunak antolatzeko. Era berean, Carlos III.a Osasun Institutuaren eginkizunak ere birdefinitzen ditu. Ikerketaren araupetzeak, osasun zentroi lotutako ikerketa klinikoak eta oinarrizkoak berariaz aipatzen dituena, esparru zabala hartu nahi du, eta jarduteko esparru desberdinak definitzen ditu, horretarako osasun publikoa eta pribatua inplikatuz.

VII. PRESTAZIOEN KATALOGOA ETA OSASUN ZERBITZUEN ZORROA ESTATUKO ETA AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO LEGEDIAN.

1. ESTATUKO ARAUAK.

Osasunari buruzko apirilaren 25ko 14/1986 Legeak ez zuen jaso osasun prestazioen katalogoaren eta zerbitzuen zorroaren araupetzea. Ia hamar urte itxaron behar izan ziren urtarrilaren 20ko 63/1995 Errege Dekretuak, zerrenda positiboaren teknika erabiliz, osasun publikoaren sistemak ematen zituen prestazioak araupetzeko. Alde batera utzi ziren prestazio farmazeutikoak, zeinak mugatze negatiboaren teknika erabiliz jada indargabeturik dagoen Sendagaiei buruzko abenduaren 20ko 25/1990 Legearen bidez (uztailaren 24ko 1663/1998 Errege Dekretua) finkatu baitziren, eta osasun publikoari lotutako prestazioak. Estatuaren Gobernuak, Prestazioen Katalogoa urtarrilaren 20ko 63/1995 Errege Dekretuaren bidez finkatzekoan, ez zuen egokitzen jo prestazioak eta haiek gauzatzeko teknikak edo prozedurak bereiztea.

2003an, Osasun Sistema Nazionalaren Kohesioaren eta Kalitatearen Legeak, oraingoan ere zerrenda positiboaren teknika erabiliz, Osasun Prestazioen Katalogoa araupetu zuen. Hala eta guztiz ere, berritasun garrantzitsuak sartu zituen 63/1995 Errege Dekretuko araubidearekin alderatuz gero. Izan ere, osasun publikoaren prestazioak, adimen osasunekoak, oinarrizko osasun laguntzako aho-hortzetako osasunaren prestazioak eta farmaziako prestazioak gehitu zituen. Halaber, laguntza soziosanitarioaren prestazioak bildu zituen. Aldi berean, zehaztu zuen oinarrizko osasun

laguntzaren mailak laguntzaren orokortasuna eta jarraitutasuna bermatzen dituela, gaixoaren bizitza osorako, eta kasuen kudeatzaile eta koordinatzaile eta fluxuen erregulatzailerik jardunen duela. Bestela ere, urtarrilaren 20ko 63/1995 Errege Dekretuaren teknikari eusten dio, eta osasun laguntzaren mota eta modalitate handiak aipatzen ditu (11. artikulutik 19. artikulura).

Aipatu estatuko oinarriko legeak ezarritakoaren arabera, osasun zorroak prestatzeko bi baldintza nagusi daude. Batetik, lehentasuna eman behar zaie terapien eraginkortasunari, efizientziari, eragingarritasunari, segurtasunari eta baliagarritasunari, bai eta laguntzarako abantailari eta aukerari, babes gutxiago duten edo arriskuan diren taldeen zainketari, premia sozialei, eta haien eragin ekonomikoari eta antolamenduzkoari ere. Bestalde, alde batera utzi behar dira modu eraginkorren gaixotasunen prebentzioan, tratamenduan edo sendaketan, bizi-itxaropenari eustean, autonomian edo minaren eta sufrimenduaren deuseztatzean edo gutxitzean ekarpen eraginkorra egiten dutela behar adina egiazaturik ez dauden teknikak, teknologiak eta prozedurak. Azken batean, zerbitzuen zorroren funtsezko helburua da katalogoak bermatzen dituen osasun prestazioetan kalitate eta fidagarritasun tekniko eta zientifikoko maila jakin batzuk bermatzea.

Osasun prestazioei dagokienez, Legeak honako arloetan bildu beharreko bermeak arautzen ditu: erabilerraztasuna, mugikortasuna, itxaron denborak, informazioa, segurtasuna, kalitatea eta erreferentziako zerbitzuak. Nabarmendu beharra dago, itxaron denborei dagokienez, 25. artikuluko ezartzen duela Lurralde arteko Kontseiluak bost esparru-irizpide adostu beharko dituela prestazioak jasotzeko gehieneko denbora bat bermatzeko; irizpide horiek, izan ere, errege dekretuz ezarriko dira, eta gero, autonomia erkidegoek, esparru horren barrenean, zerbitzuen zorroan gehieneko denborak zehaztu beharko dituzte.

Legedia horrek guztiak isla izan zuen irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuan; haren bidez, izan ere Osasun Sistema Nazionalaren Zerbitzu Komunen Zorroa eta hura gaurkutzeko prozedura ezarri ziren. Prozedura hori da azaroaren 21eko SCO/3422/2007 Aginduz garatu zena.

Aipatutako prestazio publikoetako sistemaren ezaugarriak honakoak dira: edukiaren heterogeneotasuna eta zabaltasuna eta izaera dinamiko eta ebolutiboa. Prestazioen Katalogoa zehazterakoan, klausula irekiak erabiltzen dira. Hartara, bada, esan daiteke, gehiegikerietan erori gabe, Zerbitzu Komunen Katalogoa eta Zorroa ez direla gutxienekoen sinonimoa, baizik eta guztiz kontrakoa. Izan

ere, Zerbitzu Komunen Zorroan sartutakoa oso zabala da, eta, horrenbestez, autonomia erkidegoen artean sor daitezkeen desberdintasunak, funtsean prestazio osagarriak sartzaren poderioz, ia deusezak izanen dira. Hobeki esanda, desberdintasunik sortzekotan, sortuko dira ez prestazioen zenbatekoarengatik, prestazioen kalitatearengatik baizik.

2. AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO ARAUAK.

Egiazki, Osasun Sistema Nazionalaren prestazio komunen aurreko katalogoak, urtarrilaren 20ko 63/1995 Errege Dekretuz onetsitakoak, osasun prestazioen zerrenda oso zabala ezarri zuen neurrian, autonomia erkidegoetako osasun administrazioen lehentasuna ez zen izan, hain zuzen ere beren osasun zerbitzuen katalogoak eta zorroak prestatu eta aldarrikatzea. Osasun administrazioek ontzat jotzen zuten 1995eko prestazioen antolaketak behar bezain ongi betetzen zuela arau-esparruaren beharra. Estatuko osagarri, autonomia erkidegoek ahaleginak egin zituzten prestazio osagarriak zehazteko eta prestazioak bermatzeko.

Hala eta guztiz ere, autonomia erkidegoetako zorroak prestatzeko irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuak eman zuen bultzadaren ondorioz, azken bi urteetan atzeman da autonomia erkidego batzuk lanean hasiak direla beren zerbitzuen zorroak prestatzeko eta aldarrikatzeko. Oso litekeena da autonomia erkidego horien adibideak berekin ekartzea autonomia erkidegoetako gainerako osasun administrazioek epe laburrean araugintzaren bide beretik jotzea.

Une hauetan, honako arau autonomikoak aipa daitezke:

– Aragoiko Gobernuaren maiatzaren 8ko 65/2007 Dekretua, Aragoiko Osasun Sistemaren Osasun Zerbitzuen Zorroa onesten duena. Osasun Zerbitzuen Zorro horretan, Osasun Sistema Nazionaleko zerbitzu komunez gainera, beste zerbitzu batzuk ere badaude, Aragoiko Osasun Sistemak berariaz ezarritakoak.

– Aragoiko Osasun Sailaren 2007ko uztailaren 12ko Agindua, Aragoiko Osasun Sistemaren Osasun Zerbitzuen Zorroaren eginkizunen edukia egituratzen eta onesten duena.

– Galiziako uztailaren 10eko 8/2008 Legea (3., 7. eta 8. artikulukoak eta 48. artikulutik 60. artikulura).

– Gobernu Balearraren irailaren 12ko 94/2008 Dekretua, Balear Uharteren Osasun Sistema Publikoaren Zerbitzuen Zorro Osagarriaren oinarriak onetsi eta haren edukia ezartzen duena.

– Extremadurako Gobernuaren abuztuaren 1eko 175/2008 Dekretua, Extremadurako Osasun Zerbitzuaren Oinarriko Osasun Laguntzako Zerbitzuen Zorroa onesten duena.

– Galiziako Osasun Sailaren 2007ko azaroaren 28ko Agindua, Galiziako Osasun Sistema Publiko-ko Zerbitzuen Zorroan teknika, teknologia edo prozedurak sartzeko prozedura arautzen dituena.

– Osasun Laguntzarako Zuzendaritza Nagusien abenduaren 11ko 1545/06 Ebazpena, Andaluziako Osasun Zerbitzuko Laguntza Espezializatu-ko zerbitzuen katalogoari eta talde funtzionalei buruzkoa.

Autonomia erkidegoen lehenengo ekimen horien ezaugarri komuna da Estatuko legeen ildo mimetiko eta jarraituari eutsita, alde kuantitatiboan zentratzen direla –hain zuten ere jarduerak, prozedurak, teknikak eta teknologiak ezartzean (oinarriko osasun laguntza, laguntza espezializatua, mendetasuna duten gaixo kronikoei laguntzea, adimen osasuneko laguntza, larrialdietako laguntza, osasun publikoa, farmaziako prestazioak, prestazio ortoprotesikoak, produktu dietetikoak, osasun garraioa eta abar), eta alde batera uzten dituztela osasun prestazioen kalitate zientifiko-teknikoa eta haiek behar diren denboretan eskuratu-ko direla bermatzeko behar diren baldintzak ezartzea, behar adina baliabide jartzea eta zaindu beharreko bermeak eta irizpideak finkatzea.

Aragoiko ereduak Zerbitzu Komunien Zorroaren aldean duen berritasun bakarra da osasun sektore, zentro eta unitate bakoitzak zerbitzuen zorro bat prestatu behar duela eskaintzen dituzten prozedura, ekipamendu eta teknologiarekin. Osasun zorro horien guztien osotasuna edo batura izanen da Aragoiko Osasun Sistemaren Osasun Zerbitzuen Zorroa. Galiziako kasuan ere, zerbitzuen zorro orokorraren barruan, zentro edo establezimendu bakoitzak bere zerbitzuen zorroa ezarriko du, araz ezarriko den prozedura baten arabera.

VIII. NAFARROAKO OSASUN PRESTAZIOEN ANTOLAKETA.

1. IKUSPEGI OROKORRA.

Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeak, 3.3 artikuluan, honakoa ezarri zuen: “Nafarroan eskainitako prestazioak izanen dira, gutxienez ere, gizarte segurantzako osasun zerbitzuek une bakoitzean ezarritakoak” (gaur egun, Osasun Sistema Nazionala ulertu beharko da); 5.14 artikuluan, berriz, honakoa ezarri zuen: “Foru Komunitateko osasun-administrazioak zerbitzu osagarri gehiago ezarri ahal izanen ditu, aurretik horretarako programazio eta aurrekontu zuzkidura

berezia izanda gauzatuko direnak, beren helburua arrisku bereziko faktoredun gizarte-taldeak babes-tea izanen dutelarik, lan osasuna bereziki kontuan hartuz”.

Legezko gaikuntza hori aplikatuz, Foru Komunitateko Administrazioa eskuzabala izan da osasun prestazioak antolatzerakoan. Zerbitzu Komunien Zorroa bere osotasunean onartu eta Nafarroan eragingarri egiteaz gainera, arau osagarri ugari onetsi ditu, osasun prestazio osagarri jakin batzuk ezartzeko eta Nafarroako osasun sistemak eskaintzen dituen prestazio guztietan segurtasun- eta kalitate-bermeak ezartzeko. Are gehiago, ongi ezaguna da Nafarroa aitzindaria izan dela prestazio osagarri jakin batzuk ezartzerakoan.

Hala eta guztiz ere, nahitaez aitortu beharra dago, era berean, prestazio osagarriei buruzko foru arauak eta prestazioei buruzko bermeak, orokorrean, gaur egun lege eta erregelamendu maila duten arau gehiegitan sakabanaturik daudela; arau horiek antolamendu ia meneraezina osatzen dute, asko baitira (51, hain zuten ere) eta zail gertatzen da haien artean batasuna lortzea, lokabeak direlako eta, garrantzitsuena dena, kasu askotan arauak behar adinakoak ez direlako eta zaharkituta geratu direlako.

2. OSASUN PRESTAZIOAK ARAUTZEN DITUZTEN FORU ARAUEN ZERRENDA, ALDERANTZIKO HURRENKERA KRONOLOGIKOAN, ALDE KUANTITATIBOARI ETA KUALITATIBOARI DAGOKIENEZ.

– 127/2008 Foru Agindua, urriaren 28koa, Osasuneko kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Pazienteen Seguratasunerako Behatokia sortzen duena.

– Uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legea, Osasun laguntza espezializatuaren arloko itxaronaldien bermeei buruzkoa.

– Maiatzaren 30eko 10/2008 Foru Legea, Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeko 5. artikulua aldatzen duena.

– 30/2008 Foru Agindua, martxoaren 31koa, Osasun kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Arreta Podologikoari buruzko Adituen Lantaldea sortzen duena.

– 56/2006 Foru Agindua, maiatzaren 29koa, Osasun kontseilariak emana, Nafarroako Sortzetiko Anomalien eta Eritasun Hereditarioen Erregistroa sortzen duena.

– 62/2006 Ebazpena, urtarrilaren 13koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzenda-

ri kudeatzaileak emana, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko laguntza zentroetako zerbitzuen tarifak eguneratzen dituena.

– 77/2003 Foru Agindua, uztailaren 1ekoa, Osasun kontseilariak emana, Haur eta Gazteen Aho-hortzetako Osasun Laguntzaren Programa garatzen duena.

– 140/2003 Foru Dekretua, ekainaren 16koa, aurretiazko borondateen erregistroa arautzen duena.

– 139/2003 Foru Dekretua, ekainaren 16koa, laguntza farmakologikoa eskuratzeko baldintzak ezartzen dituena, erretzetik gelditzeko.

– 129/2003 Foru Dekretua, maiatzaren 26koa, jendea hartzeko ordutegia, zaintzako zerbitzua eta oporraldia ezartzen dituena, farmazia bulegoetarako.

– 64/2003 Foru Agindua, maiatzaren 15ekoa, Osasun kontseilariak emana, Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuak eskoletako ikasleentzat sustatzen dituen kirol programetan parte hartzen duten ikasleendako osasun laguntza bermatzen duena.

– 51/2003 Foru Agindua, maiatzaren 9koa, Osasun kontseilariak emana, Elbarrien Aho-hortzetako Osasun Laguntzaren Programa garatzen duena.

– 70/2003 Foru Dekretua, apirilaren 7koa, Elbarrien Aho-hortzetako Osasun Laguntzaren Programa aldatzen duena.

– 69/2003 Foru Dekretua, apirilaren 7koa, Elbarrien Aho-hortzetako Osasun Laguntzaren Programa aldatzen duena.

– 6/2003 Foru Legea, otsailaren 14koa, tabako kontsumoaren prebentzioari, arnasteko airea babesteari eta tabakoaren aurrean osasuna sustatzeari buruzkoa.

– 13/2003 Foru Agindua, otsailaren 10ekoa, Osasun kontseilariak emana, Sortzetiko Metabolopatiak Garaiz Atzemateko Programa berrantolatzen duena.

– 122/2002 Foru Dekretua, ekainaren 10ekoa, zenbait Osasun Eskualde Oinarritzotako Lehen Osasun Laguntzako mediku orokorra eta pediatra libreki hautatzeko eskubidea zabaldu eta Emakumeari Laguntzeko Zentroetan Obstetziariako eta Ginekologiako espezialista libreki hautatzeko eskubidea garatzen duena.

– 11/2002 Foru Legea, maiatzaren 6koa, gaixoren zenbait eskubide, hain zuzen ere biziaren gaineko aurretiazko borondateak egitekoa eta

informazioa eta agiri klinikoak eskuratzekoa, arautzen dituena.

– 435/2001 Foru Agindua, abuztuaren 24koa, Osasun kontseilariak emana, Osasun Laguntzako Etika Batzordeak sortu eta kreditatzea arautzen dituena.

– 212/2001 Foru Dekretua, uztailaren 30ekoa, beste autonomia erkidego batzuetara osasun laguntza jasotzera bidalitako Osasunbideko gaixontzako bidaietarako, ostaturako eta otorduetarako dietak arautzen dituena.

– 197/2001 Foru Dekretua, uztailaren 16koa, Farmazia Laguntzari buruzko azaroaren 16ko 12/2000 Foru Legea farmazia bulegoen arloan garatzeko arauak ematen dituena.

– 320/2000 Foru Agindua, azaroaren 20koa, Osasun kontseilariak emana, Umetokiko Lepoko Minbizia Garaiz Atzemateko Programa ezartzen duena.

– 12/2000 Foru Legea, irailaren 16koa, Farmazia Laguntzari buruzkoa.

– 12/1999 Foru Legea, apirilaren 6koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zirugiarako itxaron zerrenda programatuei buruzko ebaluazio- eta jarduketa-programa arautzen duena.

– 170/1998 Foru Agindua, azaroaren 16koa, Osasun kontseilariak emana, jaioberritan Hipoakusien Antzemate Goiztiarrerako Programa ezarri duena.

– 138/1998 Foru Agindua, irailaren 29koa, Osasun kontseilariak emana, berdintasunaren eta gizarte eraginkortasunaren arabera behar den epean laguntza kirurgiko programatua izatearen bermeari buruzkoa.

– 258/1998 Foru Dekretua, irailaren 1ekoa, Nafarroako Foru Komunitatearen fondoan kargura zenbait sendagairen prestazio osagarria ezartzen duena.

– 241/1998 Foru Dekretua, abuztuaren 3koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko lehen osasun laguntzako medikuek mediku espezialista aukeratzeko ahalmenari eta osasun laguntza espezializatuaren mailako atentzio eta segimendu pertsonalizatuari buruzkoa.

– 17/1998 Foru Dekretua, urtarrilaren 26koa, kanpo-protesiei, gurpil-aulkiei, ortesiei eta protesi berezietan dagokien Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren prestazio ortoprotesikoa arautzen duena.

– 161/1997 Foru Agindua, abenduaren 10ekoa, Osasun kontseilariak emana, Tokoginekologia eta

Familia Plangintzako osasun prestazioen antolamendua ezartzen duen irailaren 22ko 259/1997 Foru Dekretua garatzeko arauari buruzkoa.

– 259/1997 Foru Dekretua, irailaren 22koa, Tokoginekologia eta Famili Plangintzako osasun prestazioen antolamendua ezartzen duena.

– 29/1997 Foru Dekretua, otsailaren 10ekoa, Nafarroako lurreko osasun garraioa arautzen duena.

– 284/1996 Foru Agindua, azaroaren 28koa, Osasun kontseilariak emana, Oinarrizko Osasun Laguntzaren egituraren barruan, diabetikoari laguntza emateko programa ezartzen duena.

– 640/1996 Foru Dekretua, azaroaren 18koa, Nafarroako Foru Komunitatean Osasun-laguntza Publikoa Ororenganatzeko araubideko prestazioen prozedura eta baldintzak ezartzen dituena.

– 498/1995 Foru Dekretua, azaroaren 13koa, gaixoak eta istripuren bat izandakoak anbulantziaz garraiatzeko gutxienezko eta funtsezko zerbitzuak ezartzen dituena.

– 1994ko abenduaren 23ko Foru Agindua, Osasun kontseilariarena, pediatriaren estaldura 14 urtera arte, hori barne, zabaltzen duena.

– 244/1994 Foru Dekretua, azaroaren 28koa, Oinarrizko Osasun Laguntzan sendagile orokorra eta sendagile pediatra libreki hautatzeko eskubi-dea arautzen duena.

– 204/1994 Foru Dekretua, urriaren 24koa, herritarrek Nafarroako Foru Komunitateko osasun sistema dela-eta erreklamazioak aurkezteko eta iradokizunak proposatzeko prozedura ezartzen duena.

– Foru Agindua, 1993ko ekainaren 16koa, Osasun kontseilariak emana, farmazia-bulegoetan gutxienez ere eduki beharreko sendagaiak onesten dituena.

– Foru Agindua, 1991ko urriaren 31koa, Osasun kontseilariak emana, norbanakoaren osasun txartela arautzen duena.

– 241/1991 Foru Dekretua, uztailaren 4koa, pediatriaren estaldura 14 urtera arte luzatzen duena.

– 71/1991 Foru Dekretua, otsailaren 21ekoa, Foru Komunitateko osasun laguntza publikoa oro-renganatzeari buruzkoa.

– 10/1990 Foru Legea, azaroaren 23koa, Osasunari buruzkoa.

– 301/1988 Foru Dekretua, abenduaren 27koa, giza fluidoekin kontaktuan egon den eta erabili eta

botatzekoa ez den materiala esterilizatzeko arauak ezartzeari eta erabili eta botatzekoa den materiala deuseztatzei buruzkoa.

– Foru Agindua, 1988ko irailaren 14koa, Osasun kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Minusbaliotasun Psikikoen Prebentziorako Programa ezartzen duena.

– 67/1987 Foru Dekretua, martxoaren 20koa, Nafarroako Foru Komunitatean Umeen Osasun Liburuxkaren erabilera arautzen duena.

– 124/1986 Foru Dekretua, maiatzaren 9koa, aldizkako zenbait azterketa medikotan torax aldeko esplorazio erradiologikoen erabilera arautzen duena.

– Foru Agindua, 1985eko irailaren 6koa, Osasun eta Gizarte Ongizate kontseilariak emana, zentro edo establezimendu sanitarioak abortuak egiteko kreditatzeko arauari buruzkoa.

– Foru Agindua, 1985eko irailaren 6koa, Osasun eta Gizarte Ongizate kontseilariarena, zentro edo establezimendu sanitarioak abortuak egiteko eta fetuaren tara fisiko eta psikiko larrien zantzuei buruzko irizpenak emateko kreditatzeari buruzkoa.

– 22/1985 Foru Legea, azaroaren 13koa, Nafarroako osasun eskualdeei buruzkoa.

– 205/1985 Foru Dekretua, urriaren 23koa, Nafarroako Odol Bankuan HIESaren (Hartutako Immunoeskasiaren Sindromea) birusaren aurkako antigorputzen determinazio sistematikoaren nahitaezkotasuna ezartzen duena eta Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean egiten diren osasun praktika parenteraletan erabilera bakarreko xiringak erabili behar izatea ezartzen duena.

IX. NAFARROAKO OSASUN ZERBITZUEN ZORROA PRESTATZEKO AUKERA.

Zerbitzu Komunen Zorroa jada errealitate bat da Estatuan (maiatzaren 28ko 16/2003 Legea eta irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretua). Oinarrizko arau komun horietatik abiatuta, autonomia erkidegoek beren zerbitzuen zorroak ezarri ahal dituzte eta ezarri behar dituzte. Horiek, alde bate-tik, prestazio komun katalogoa jaso edo bere egin behar dute; eta, gainera, egokitzen jotzen dituztenak gehitu ahal dituzte. Bestetik, prestazio horien bermeak ezarri ahal dituzte.

Egiaztatu berri dugun bezala, Foru Komunitateko osasun administrazioak zenbait prestazio osagarri gehitu ditu eta berme jakin batzuk ezarri ditu osasun sistemak eskaintzen dituen prestazioak direla eta. Hala eta guztiz ere, azpimarratu beharra dago Nafarroan dauden osasun prestazioen eta

haien bermeen osotasuna hainbat mailatako arautan sakabanaturik dagoela, eta arau horietako batzuk nahiko zaharrak direla (hamabi, hamabost urte eta gehiago) eta, horrenbestez, une jakin bateko laguntza-parametroen arabera direla. Hori dela eta, oso urrun daude formalki "osasun prestazioen katalogotzat" edo "zerbitzuen zorrotzat" hartu ahal izateatik.

Arlokako arau-testuak eta, oro har, testu sakanatuak dira, eremu jakin batzuei buruzkoak, eta esparru komun eta bateratzailea ezarriko duten arau orokorrak falta dira. Hori dela eta, arauen multzo konplexu eta korapilatsu hori prestazioak jasotzen dituen herritarrek berak edo multzo hura erabili behar duten organo administratiboek interpretatu eta aplikatzea ez da batere erraza ikuspuntu tekniko-juridikotik, zeren eta arau asko, antzeko arloei buruzkoak izanda, elkarren gainean jartzen eta nahasten baitira, eta ez baita erraza izaten zehaztea zein neurritan diren elkarren osagarriak edo, bestela, zein neurritan ordeztzen diren indargabetze tazituekin. Adibide gisa, gogora daiteke itxaron zerrendei buruzko erregulazioa, indarra duten eta, beraz, harmonizatu behar diren hurrengo lau arauetan jasotakoa: a) 10/1990 Foru Legea, azaroaren 23koa, Osasunari buruzkoa; b) 138/1998 Foru Agindua, irailaren 29koa, Osasun kontseilariak emana, berdintasunaren eta gizarte eraginkortasunaren arabera behar den epean laguntza kirurgiko programatua izatearen bermeari buruzkoa; c) 12/1999 Foru Legea, apirilaren 6koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren zirugiako itxaron zerrenda programatuei buruzko ebaluazio- eta jarduketara-programa arautzen duena; d) Uztailaren 2ko 14/2008 Foru Legea, Osasun laguntza espezializatuaren arloko itxaronaldien bermeari buruzkoa.

Bestalde, prestazioen arlo jakin batzuen erregulazioa zaharkiturik dago, haiek antolatzen dituzten arauak zaharrak direlako eta ez direlako gaurkotu. Esate baterako, osasun garraioa –haren erregulazioa orain dela hamabi urtekoa da– edo prestazio ortoprotesikoak – orain dela hamalau urteko erregulazioa dauka–.

Aurrekoari gehitu behar zaio osasun laguntza-aren arloan teknologia berriak agertu direla, diagnosirako eta terapiarako prozedura berriak, material berriak, aurkikuntza zientifiko berriak eta abar. Hori dela eta, osasunaren arloko aurrerapenak eta berrikuntzak etengabeak dira, eta berrikuntza horiek, pixkanaka, praktika klinikoan sartzen joaten dira, baina ez dira formalki sartzen Prestazioen Katalogoan edo Zerbitzuen Zorroan, edo, bestela, oso berandu sartzen dira. Orduan, egungo errealitatearen eta gure osasun sisteman pixkanaka sar-

tzen joan diren osasun prestazio zehatzen erregulazioaren denboraren artean astiro sortzen joan den desfaseak, azkenean, prestazioei buruzko araubide defasatuak eragin ditu, eta batzuetan araubide zaharkituak edota erabiltzaileentzat kaltegarriak, bai prestazio jakin batzuetara sarbidea izateari dagokionez, bai prestazio horien edukiari dagokionez, bai eta, kasua bada, finantziazioan izan beharreko parte-hartzeari dagokionez ere.

Aurrekoa azalduta, bi ondorio garrantzitsu atera daitezke. Lehenengoa da ezinbestekoa dela Nafarroan Osasun Prestazioen Katalogoa aldizka gaurkotzea eta berritzea, alde kuantitatibotik eta alde kualitatibotik ere. Bigarrena da gaurkotze lan hori askoz ere errazago gertatuko dela Prestazioen Katalogoa arau-tresna bakarrean bilduta bada, hau da Osasun Zerbitzuen Zorroan.

Hori dela eta, guztiz gomendagarria da Nafarroako Osasun Administrazioak Nafarroako Osasun Sistemak eskaintzen dituen Osasun Prestazioen Katalogoari buruzko azterlan bat bultzatzea, hura gaurkotzeko, berrantolatzeko, arrazoitzeko eta eraginkor egiteko berariaz prestatuko eta onetsiko duen Osasun Zerbitzuen Zorroaren bitartez. Helburu hori betetzeko, prestazioei buruzko araubide sakabanatua berrikusi eta gaurkotu behar da, eta hura egungo parametroen arabera egokitu behar da. Komenigarria izanen da, halaber, baloratzea ea komenigarria den Zerbitzuen Zorro orokorraren esparruan, osasun sektore, zentro eta unitate bakoitzak zerbitzuen zorro bat presta dezan, eskaintzen dituzten prozedura, ekipamendu eta teknologiek. Osasun zorro horien guztien osotasuna edo batura izanen litzateke Nafarroako Osasun Sistemaren Osasun Zerbitzuen Zorroa.

Horrekin ez dugu esan nahi gomendatzen dugunik erregelamenduzko arau bakarrean biltzea aurretik azaldutako 51 arauak. Aldezten duguna da arau bat lantzea, Osasun Zerbitzuen Zorroa, eta hark aipatutako foru dekretu eta foru agindu gehienak ordeztzea.

2006-2012 urteetarako Osasun Departamentuak eginiko Nafarroako Osasun Planak berak gai hori planteatzen du eta heltzen dio "osasun prestazioak berrikusi eta gaurkotzeko beharriari, eta dokumentu bateratu batean biltzen ditu bai nahitaezkoak diren osasun sistema nazionalako oinarriko osasun prestazioak, bai Nafarroan osagarri diren beste batzuk ere" (61. orrialdea). Horretarako, osasun prestazioak bermatzearen arloko jarduera gisa, honakoa aurkezten du: "Nafarroako osasun prestazioen katalogoa egitea, prestazioak eta haien arauak bilduz, berrikusiz eta gaurkotuz, eta zerbitzuen zorroa definitzea, legez aitorturiko prestazioen arabera." (64. orrialdea).

X. NAFARROAKO OSASUN ZERBITZUEN ZORROAREN EDUKIAK.

1. ZERBITZUEN ZORROAREN EDUKI SUBSTANTIBOA.

Nafarroako osasun sistemako prestazioen zerbatespen bat da. Osasun Zerbitzuen Zorroak bildu beharko ditu, gutxienez ere, Prestazioen Katalogo eta Zerbitzu Komunuen Zorroa, eta, gainera, jada ezarritako eta ezartzea komeni diren prestazio osagarriak deskribatu beharko ditu, bai eta haiek eraginkor egiteko teknikak eta prozedurak ere.

Zerbitzuen Zorroa hura egiteko unean dagoen maila kliniko eta asistentzialaren araberakoa izanen da ikerketari, baliabide teknologikoei, baliabide ekonomikoei eta abarrekoiei dagokienez. Helburua ez da soilik prestazio berriak ezartzea, baizik eta jada badauden prestazioak finkatzea, zabaltea eta hobetzea, teknika, teknologia eta prozedura berriak sartuz eta zaharkituta daudenak baztertuz. Horri dagokionez, Zerbitzuen Zorroa etengabe gaurkotzen joateko prozeduraren oinarriak finkatu beharko dira, eta erraztasunak emanen dira zerbitzu berriak gehitzeko –hain zuzen ere berrikuntzaren eta ikerketaren ondorioz osasun laguntzaren arloan sartzen joaten direnak– eta ezagutza zientifikoaren arabera desfasatuta geratu direnak baztertzeko. Horri dagokionez, bereizi beharra dago beti zer diren berez prestazio berriak eta jada aitortuta dauden prestazioen esparruko teknika edo diagnosirako edo terapiarako prozedura berriak.

Azken batean, grabitate zentroa ez dago jada prestazio berriak sartzean, baizik eta jada badaudenen estaldura erreala hobetzean.

Zerbitzuen Zorroa mugitu behar den dinamika ebolutiboak exijitzen du berriazko aplikazio informatiko bat, zeinak bideratuko duen etengabe mantentzea eta gaurkotzea. Osasun Zerbitzuen Zorroak guztientzat erabilerraza izan behar du, profesionalentzat nahiz herritarrentzat, Nafarroako Gobernuaren webgunearen bitartez.

2. ZERBITZUEN ZORROAREN EDUKI SUBSTANTIBOAREN BERMEAK.

Kontua da osasun prestazioak funtzionalki antolatzea, eta haiek emateko baldintzei buruzko bermeak ezartzea. Honakoei buruzko bermeak dira, gutxienez ere: erabilerraztasuna; mugikortasuna; gehieneko itxaron denborak; emandako laguntzaren kalitate zientifiko-teknikoa, betiere ikuspegi medikotik (diagnosirako eta terapiarako teknika eraginkorrak, eta erabilitako teknologiak eta prozedura klinikoak erabiltzeko prozedurak

ezartzea, erabaki klinikoaren edo kudeaketaren arloko erabakien oinarri gisa), eta erizaintza-zainketa-aren ikuspegitik (erizainei eskumen berriak emanez); gaixoen egokitze fisikoa, haien autonomia pertsonala eta intimitatea zainduz (banakako gelak eta abar); informaziorako eskubidea (historia kliniko digitalizaturako sarbidea izatea eta abar); alderdi formal, administratibo eta elektronikoa (errezeta elektronikoa eta abar), osasun laguntzarekin zerikusia dutenak, eta abar.

Nolanahi ere, Osasun Zerbitzuen Zorroaren bitartez, antolaketa egokia hautatuz, erabilerraztasuna eta osasun zerbitzuen ekitatea bermatu behar dira, betiere laguntzarako antolamenduari, lurralde-banaketarekin eta Foru Komunitateko biztanleriaren ezaugarriekin bat etorritik.

3. EDUKI SUBSTANTIBO ETA FUNTZIONAL BATZUEN AIPAMEN BEREZIA.

Araupetze honetan, bereziki alderdi batzuk zaindu behar dira. Honakoak dira, gutxienez ere: osasun laguntzaren unibertsaltasuna eta doakotasuna, osasun publikoa, laguntza soziosanitarioa eta prestazioetan kalitatea eta fidagarritasun tekniko eta zientifikoa bermatzeko behar diren bermeak.

A. Osasun laguntzaren unibertsaltasuna eta doakotasuna.

Osasunari buruzko azaroaren 23ko 10/1990 Foru Legeko hirugarren artikulua ezarri zuen osasun laguntza publikoa Nafarroako edozein udal-letan bizi direnengana zabalduko zela. Zabaltze horrekin, foru legeak eraginkor egin nahi zuen berdintasunaren printzipioa, guztiok osasun zerbitzu publikoetarako sarbide berdina izatearen bermeari dagokionez. Hartara, unibertsalizazioaren tresnaren bidetik, osasun laguntza herritarrek eskubide dituzten zerbitzuetako bat izatera pasa zen –norberaren ezaugarriak, lan egoera edo ordaintzeko gaitasuna zein diren alde batera utzita.

Alabaina, legezko xedapen hori eraginkor egiteko ez zen nahikoa foru legeak adierazitakoa: arau bidezko garapena behar zen. Araupetze hori Osasun Laguntza ororengantzeari buruzko otsailaren 21eko 71/1991 Foru Dekretuaren bitartez gauzatu zen. Foru dekretuaren helburua zen osasun laguntza publikoa Foru Komunitateko edozein udal-letan bizi eta osasun publikoaren babesik ez zuten edo hura edozein titulu juridikoren bidez eskuratzeko biderik ez zuten pertsona guztiei zabaltzea. Hala eta guztiz ere, Foru Dekretuaren zioen azalpenean jaso bezala, legearen aginduz, unibertsalizazioaren printzipio horren aplikazioak bermatu behar zuen osasungintzarako sarbidea

eta prestazioak berdintasun efektiboaren baldintzetan gauzatzea, betiere printzipio hori eskubideen eta betebeharren alde bikoitzetik ulertuta. Lehenbiziko aldetik, ezarri zen eskubidea izan zela une bakoitzean Gizarte Segurantzaren osasun zerbitzuetarako finkaturiko prestazioetarako, bai eta Foru Komunitateko Administrazioak ororentzat eskain ditzakeen beste batzuetarako ere. Bigarren aldetik, jakinda foru dekretuak diseinaturiko sistemara Gizarte Segurantzaren araubideetara edo beste araubide publiko batzuetara kotizatze beharrik izan ez eta osasun publikoaren laguntzaren finantziazioan soilik partzialki –zergen bidez bai, baina ez kotizazioen bidez– parte hartzen zuten pertsonak bil zitezkeela, haientzat ezarri zen sistemaren finantziazioan lagundu behar izatea gainerako herritarrek laguntzen zuten proportzio parekideetan. Horrenbestez, ustezko unibertsalizazioa ez zen erabatekoa izan, zeren eta Gizarte Segurantzaren edo beste araubide publikoren batean kotizatzen ez zutenak behartzen baitziren laguntzaren finantziazioan parte hartzera, hura osasun sistema publikotik lortu nahi bazuten.

Aurrerago, jada 1996an, azaroaren 18ko 640/1996 Foru Dekretuaren bidez, Foru Komunitatean osasun laguntza publikoaren unibertsalizazio araubideko prestazioak eskuratzeko prozedura eta baldintzak ezarri ziren. Araupetze berri hori –segur aski justifikazio txikiagoarekin, aldarrikatu zen urterari erreparatuz gero– 1991ko araupetzearen koordinada berdinetan kokatu behar da; izan ere, “berdintasun efektiboa” lortzeko xedez, unibertsalizazioaren onuren aitorpena onuradunak laguntza finantzatzearekin lotuta baitago, hain zuzen ere Gizarte Segurantzarako kotizazioekin pareka daitezkeen terminoetan. Izan ere, foru dekretuaren aitzinsolasean baieztatzen da osasun laguntza unibertsalizatzearen printzipioa osatu nahi dela, babestu gabeko azken kolektiboa ere barne hartuz –hain zuzen ere Nafarroako edozein udaletan bizi diren pertsonak, Gizarte Segurantzaren araubideetarako kotizatzen behartuta ez daudenak eta Foru Komunitatearen Administrazioaren edo beste erakunde publikoren baten kargurako osasun estaldurarik ez dutenak eta beren borondatez osasun laguntza horri atxiki nahi zaizkionak haren finantziazioan laguntzaren truke, betiere Nafarroako osasun publikoko per cápita gastua gaintzen ez duen zenbateko baten bidez. Horrekin justifikatzen da osasun sistemarako sarbidea eta prestazioak berdintasun efektiboko baldintzetan eman daitezkeen berrmatzea legearen aginduz ezartzen duen araubidea. Horrek, betebeharraren ikuspuntutik, berarekin dakar pertsonak aukera dutela Gizarte Segurantzarako araubideetan edo beste araubide publiko batzuetan sartzeko aukera

dutenean eta derrigor kotizatu behar ez dutenek sistemaren finantziazioan lagundu behar izatea, gainerako herritarrek laguntzen duten proportzio parekideetan.

Azkenik, araubide hori bururaino eramaten da Nafarroako Foru Komunitatearen abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen bitartez, non isiltasun administratibo negatiboa ezartzen baita unibertsalizazioaren araubidearen bitartez osasun publikoko laguntzarako eskubidea aitortzeko prozedurarako (2. eranskina).

Kofinantzioko edo koordainketako araubide berezi hori desegokia da erakunde honen iritziz. Eta hala da ondoren azaltzen ditugun arrazoiengatik.

Konstituzioaren arabera:

a) Osasun laguntza “publikotzat” hartu behar da ez “Gizarte Segurantzaren laguntzatzat” (Konstituzio Auzitegiak berretsi du hori maiatzaren 25eko 98/2004 epaian, non baieztatzen baitu osasun publikoaren laguntza Espainiako Konstituzioko 149.1.16 artikuluan oinarritzen dela, eta ez 149.1.17 artikuluan).

b) Osasun laguntzaren izaera ez-kontributiboa eta unibertsalista eta hura autonomia erkidegoetako aurrekontu orokorren bitartez guztiz finantzatzea Gizarte Segurantzarekiko eta haren araubide ekonomikoarekiko ustezko loturarekin aurrez aurre jotzen du, zeren eta finantzioko sistemak antagonikoak baitira.

c) Hori dela eta, gaur egun, Gizarte Segurantzako kotizazioetatik ez da inolako portzentajerik gordetzen osasun laguntza publikoa finantzatzeko. Aitzitik, hura zergen eta aurrekontu orokorren bitartez finantzatzen da guztiz. Laburbilduz, Gizarte Segurantzaren sistematik Osasunaren Sistema Nazionalera aldatzea jada behin betikoa da.

Horrenbestez, guztiz gomendagarria dirudi osasun laguntzaren unibertsalizazioari buruzko foru araua aldatzea eta hura azaldutako koordinaden arabera egokitzea. Nafarroan egoitza duten herritarren osasun laguntzarako eskubidea aitortzea eta, horrenbestez, haiek osasun zerbitzua eskuratzeko duten eskubidea –zeina zehazten baita norbanakoaren osasun txartela emanaz– Osasun Administrazioari dagokio, eta hura Nafarroan egoitza duen herritarra izateagatik egin behar du, ez Gizarte Segurantzari edo bestelako araubide publikori kotizatzen dion herritarra izateagatik, edo bere borondatez unibertsalizazio araubideari atxikitzeagatik, baina hura zati batean finantzatuz. Aitorpena inolako kofinantzaziorik finkatu gabe egin behar da, zeren eta kasuko herritarrak

jada guztiz finantzatzen baitu dagokion osasun laguntza zergen bitartez, gainerako herritarrek bezala. Gainera, eskubidea aitortzeko prozedura administratiboan isiltasun administratibo positiboa ezarri behar da.

B. Osasun publikoa.

Ez zaio garrantzirik kendu behar osasun publikoaren esparru garrantzitsuari. Osasun Sistema Nazionalaren Kohesioaren eta Kalitatearen Legeak, berritasun gisa, osasun publikoa Zerbitzu Komunen Zorroan sartzen du, prestazioen katalogo beste osasun prestazio bat balitz bezala. Izan ere, XXI. mendeko mundu globalizatuan, osasun publikoak garrantzi berezia hartzen du. Muga politikoak, eta are muga fisikoak ere, desagertu izanak, aldaketa sozialek, demografikoek, ekonomikoek, kulturelek eta abarrek eragin handia dute osasunean. Osasunaren arazo berriei behar den moduan aurre agin ahal izateko, beharrezkoa da osasun sistemaren baliabideak nabarmen zabaltzea, batez ere gurea bezalako ingurune batean, non defizita baitago arlo horretan, Europar Batasuneko herrialde gehienekin alderatuz gero.

Irailaren 15eko 1030/2006 Errege Dekretuko I. eranskina osasun publikoaren Zerbitzu Komunen Zorroari buruzkoa da guztiz. Osasun publikoaren prestazio gisa jasotzen ditu administrazio publikoek biztanleriaren osasuna zaintzeko, babesteko eta sustatzeko antolatzen dituen ekimen antolatutak. Osasun publikoaren prestazioa pertsona guztien osasuna mantentzera, eta hobetzera zuzendutako zientzien, trebetasunen eta jardueren nahasketa bat da, ekintza kolektibo edo sozialen bitartez. Ekintza horiek, izan ere, osotasun izaeraz gauzatu beharko dira, administrazioen osasun publikoko egituren bitartez eta osasun sistemaren oinarritzako osasun laguntzarako azpiegituren bitartez. Osasun publikoaren prestazioak honako arlo hauetan zehaztu behar dira:

- Informazio eta zaintza epidemiologikoa.
- Osasunaren babesa: osasunaren inguruko politikak diseinatzea eta ezartzea eta osasuna agintaritzatza.
- Osasuna sustatzea eta gaixotasunei eta ezgaitasunei aurrea hartzea.
- Ingurumeneko osasuna zaintzea eta sustatzea.
- Elikagaien arloko segurtasuna sustatzea.
- Salgaien inportazioak, esportazioak edo joan-etorriek eta bidaiarien trafikoak osasunerako ekar ditzakeen arriskuen zaintza eta kontrola.

– Lan arloko osasuna zaintzea eta sustatzea.

Azken batean, osasun publikoaren esparru zehatzean, Zerbitzuen Zorroa garatu behar da, eta katalogoa osatzen duten prestazio guztietan kalitate-estandarrak erabili behar dira. Estandar horiek zehatzak izanen dira eta Administrazioak bete beharko ditu. Haiek betez gero, kasua bada, Administrazioaren funtzionamenduaren ondoriozko ondare-erantzukizuna sortuko litzateke.

C. Laguntza soziosanitariaoa.

Osasun Sistema Nazionalaren Kohesioaren eta Kalitatearen Legean laguntza soziosanitarioari buruzko honako definizioa ageri da: “dauzkaten berezitasunengatik, beren autonomia handitzeko, mugak arintzeko eta gizarteratzea errazteko, osasun eta gizarte zerbitzuen aldi bereko esku-hartze eta lankidetzaren onura har ditzaketan gaixoei, oro har gaixo kronikoei, zuzendutako zainketen multzoa hartzen duen laguntza.” Laguntza soziosanitarioak, horrenbestez, osasun izaerako tresnak bildu beharko ditu (oinarritzako osasun laguntza, etxeko ospitaleratzea, eriondorako eta zainketa aringarrietarako ospitale-unitatea, zerbitzu geriatrikoa, adimen gaixo kronikoentzakoak eta abar) bai eta ekintza sozialeko tresnak ere (etxez etxeko laguntza, telelaguntza, eguneko edo gaueko egonaldiak, egoitza-zentroak eta abar).

Helduak eta zaharrak laguntza soziosanitariaoa behar duen eta menpekotasuna duen kolektibo nagusia eta handiena da; kolektibo horrek, 2006an, Nafarroako populazioaren % 17,4 hartzen zuen, eta datozen hamarkadetan etengabe eginen du gora. Zaharren kolektiboaren ondoren, ezgaituen eta adimeneko gaixoen kolektiboak datoz. Kasu guztietan, gaixotasuna, alde handiz, menpekotasunaren arrazoi nagusia da. Horrenbestez, menpekotasuna duten pertsonen (zaharrak, adimeneko gaixoak eta abar) laguntza soziosanitarioak protagonismo berezia hartu behar du osasun zerbitzuen edozein zorrotan.

Autonomia sustatzeko eta menpekotasun egoeran dauden pertsonen kasu egiteko abenduaren 14ko 39/2006 Legeak organikoki jasotzen du menpekotasuna duten kolektiboari –gehien bat zaharrei– eman beharreko laguntza, gizarte zerbitzuen arloan. Legeko 15. artikulua, zerbitzuen katalogoari buruzkoak, prestazio soziosanitarioak jasotzen ditu, baina Osasun Sistema Nazionalaren Kohesioaren eta Kalitatearen Legean horretarako arautu duenera jotzen du; betiere, lege horrek prestazio soziosanitarioaren definizio teoriko bat baizik ez du egiten. Bestalde, Zerbitzu Komunen Zorroak ez ditu zehazten, ez definitzen ere, laguntza soziosanitarioak berezko dituen prestazioak, eta zehaz-

tapen edo definizio hori oraindik ere egin ez den erregelamendu baterako uzten du. 39/2006 Legearen azpian, horrenbestez, lotura falta bat atzematen da menpekotasunerako laguntzaren arloko alderdi sozialen eta sanitarioen artean. Azken batean, ez da jasotzen alderdi soziosanitario garrantzitsuen araupetzerik, eta osasunaren arloko legeetan ere ez da gisako ezer egiten.

Nafarroari erreparatu gero, adierazi beharra dago Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legeak, 39/2006 Legearen garai berekoa denak, ez dituela prestazio soziosanitarioak aipatzen, ez eta menpekotasuna dutenei laguntzeko zerbitzu sozialak eta soziosanitarioak artikulatzeko irizpideak ere.

Bada, lege-osagai horiek erabiliz, Nafarroako Gobernuak menpekotasun egoeran dauden pertsonen laguntza emateko sistema bat egituratu beharra dauka, haien premia sozialei eta sanitarioei erantzuna emateko. Eta sistema sozialeko eta sanitarioko prestazioak eta zerbitzuak koordinatzea eta elkarren osagarri izan daitezen lortzea, hasiera batetik, ez da inolaz ere erraza, zeren eta bien artean desberdintasun handiak baitaude.

Hartara, osasun sistemaren prestazioak, lege ezarritako katalogo zabalari dagokion neurrian, osasun profesionalek gauzatzen dituzte, libreki, atzematen dituzten premien arabera, eta guztiz doakoak dira, salbuespen batzuekin. Aitzitik, menpekotasunerako autonomia eta laguntza sistemak prestazioak emateko aurretik kasuko pertsona menpekotzat baloratu behar da, eta onuradunak prestazio horiek kofinantzatu behar ditu, bere ahalmen ekonomikoaren arabera eta jasotzen duen zerbitzuaren arabera. Horri gehitu behar zaizkio osasun arloko eta gizarte zerbitzuen arloko ezagutzak eta eskumenak. Elementu horiek direla eta, arlo sozialaren eta osasuna arloaren arteko mugak aldakorak dira eta bilakatzen joaten dira.

Nolanahi ere, menpekotasunerako laguntza egokia emateko, behar adina dibertsifikatutako prestazioen eta zerbitzuen katalogo bat bermatu beharra dago, menpekotasuna duen pertsona bakoitzaren banakako premiei erantzuna emateko, betiere ahal den autonomia pertsonal handiena erraztuz, prebentzioaren eta errehabilitazioaren arloan lehentasunak ezarriz, zerbitzuen hurbiltasuna eta premia duenari erkidegoan bertan laguntza emanen zaiola bermatuz eta ahal den guztian instituzionalizazioa saihestuz. Menpekotasunerako laguntza prestazio sozial, sanitario eta soziosanitarioen bitartez gauzatu behar da, eta laguntza horiek teknikoak izanen dira, eta salbuespen gutxi batzuetan, ekonomikoak. Laguntza soziosanitarioko zerbitzuek beren baitan hartu behar dute dauz-

katzen berezitasunengatik, beren autonomia handitzeko, mugak arintzeko eta gizarteratzea errazteko, osasun eta gizarte zerbitzuen aldi bereko esku-hartzearen eta lankidetzaren onura har ditzaketan gaixoei, oro har gaixo kronikoei, zuzendutako zainketen multzoa. Honakoak biltzen ditu: a) iraupen luzeko zainketa sanitarioak; b) eriondora-ko laguntza sanitarioa; c) lehengoratzeko moduko defizit funtzionala duten gaixoen errehabilitazioa.

D. Zerbitzuen eta osasun prestazioen kalitatea.

Adierazi dugun bezala, Nafarroako Foru Komunitateari dagokio bere zerbitzuen zorroa ezartzea. Zorro horren bidez, aurrera egin behar du Zerbitzu Komunen Zorroaren edukiak praktikoki bideratzeko eta aipatzen diren bermeak eraginkor egiteko. Hau da, behar den neurrian teknikak, teknologiak eta prozedurak jasotzeaz eta osatzeaz gainera, Zerbitzu Komunen Zorroari ez dagokion esparru bat lantzeko eta garatzeko eginkizun garrantzitsua eta ezinbestekoa bete behar du, alegia, gaixoen eta sistemako erabiltzaileen eskubideak exijitzeko modukoak eta eraginkor egitekoak direnez, bermearen dimentsioa gauzatzea. Izan ere, zalantzarik gabe, eskubide baten aitortpenak haren bermeak ematen dion balioa baitu. Nafarroako Zerbitzuen Zorroaren funtsezko helburua da, horrenbestez, jasotzen dituen osasun prestazioen kalitate-mailak eta fidagarritasun tekniko eta zientifikoa bermatzea.

Beste arau batzuetan aitorturiko eskubideen bermeak ezartzeko, haien titularrak gaixoak eta erabiltzaileak direnean, beharrezkoa da prozedurak erregulatzea sendagilearen eta gaixoaren arteko eta erakundearen eta erabiltzailearen arteko harremanen alderdi ugarritan. Esate baterako, ondokoak aipa daitezke:

- Gaixoaren intimitatea eraginkor egiteko bermeak eta senideek eta gaixoarekin lotutako pertsonen gaixoa laguntzeko arauak eta irizpideak.
- Informazio klinikorako prozedurak eta formulak: sendagile arduraduna, laguntzaren inguruko informaziorako ohiko ordutegiak eta abar.
- Gaixoen eta erabiltzaileen eskubide eta bete-behar orokorrei buruzko informazio-prozedurak, lengoia ulergarria erabiliko dela bermatuz (eskubide orokorren eta zerbitzuen araberrako eskubideen gutunak eta abar).
- Erreklamazioak eta iradokizunak egiteko prozedurak eta erantzuna ezarritako epeetan jasotzekoak.

- Aurretiko jarraibideak formulatzeko prozedurak.
- Informazioan oinarrituriko baimena emateko prozedurak.
- Tratamendu bat jasotzeari ezezkia emateko prozedurak.
- Sendagilea edo zentroa hautatzeko prozedurak.
- Ezgaitasuna duten pertsonen, adingabeei eta abarrei laguntza ematean zalantzak edo gatazkak sortzen diren kasuetan jarraitu beharreko prozedurak.
- Biopsiak edo erauzketak egiteko prozedurak.
- Bigarren iritzia eskatzeko prozedura.
- Dokumentazio klinikoaren babesteko bermeak.
- Gaixo terminalen berezko eskubideez baliatze prozedurak.
- Farmazia-prestazioa erabiltzaileari errazteko prozedura eta bitarteko teknologikoak (errezeta elektronikoa eta abar), behar diren izapideak ahal den guztian erraztuz.
- Erabaki klinikoak eta kudeaketaren arloko erabakiak oinarritzeko erabiltzen diren teknologiak eta prozedura klinikoak ebaluatzeko prozedurak.

XI. TXOSTEN BEREZIAREN ZIRRIBORROARI OSASUN DEPARTAMENTUAK AURKEZTUTAKO ALEGAZIOAK.

Osasun Departamentuak, erakunde honek 2009ko apirilaren 14an eginiko eskariari erantzunez –hain zuzen ere bere iritzia eman zezan eta behar zituen alegazioak aurkez zitzan txosten berezi honen zirriborroari buruz–, 2008ko ekainaren 8an txostena helarazi zigun. Hartan, txosten bereziaren aipatu zirriborroa dela-eta duen jarrera finkatzen du.

Osasun Zerbitzuen Zorroari buruzko eta Nafarroako osasun prestazioen araubideari buruzko azalpen luze baten ondoren, txostenak amaitzen du adieraziz Osasun Departamentua Nafarroako Foru Komunitatearen Osasun Publikoaren Plan Estrategikoa prestatzen ari dela eta aurreikusia duela 2009ko ekainaren bukaeran hura Nafarroako Parlamentuan aurkeztea.

Aipatzen du plan estrategiko horretan Osasun Zerbitzuen Zorroa garatzea aurreikusten dela ildo estrategiko gisa, eta garatu beharreko ekintza gisa ezartzen du “Osasun sistemaren zerbitzuen zorroa gaurkotzea eta kalitate-konpromisoak ezartzea”.

XII. ONDORIOAK ETA IRADOKIZUNA.

1. ONDORIOAK

Lehen a. Osasun prestazioei dagokien guztiak garrantzi handiena du herritarrentzat. Izan ere, herritarrek botere publikoei eskatzen diete osasun prestazioen katalogo ahal den zabalena eskaintzea, prebentzioko, laguntzako eta konponbideko prestazio zehatzei dagokienez eta, gainera, berandutzerik gabeko osasun laguntza eta ahal den kalitate handienekoa, laguntza-tekniketan eta diagnosirako eta terapiarako prozeduretan etengabe gertatzen diren aurrerapenen arabera; izan ere, herritarrentzat goreneko balioa duena dago jokoan: beren osasuna eta osotasun fisikoa, bai eta beren senideena eta hurbilekoena ere. Hori lortzea, zuzenbidezko estatu sozialaren betebeharrak konstituzional bat da.

Bigarren a. Nafarroako Foru Komunitateak, gaur egun, osasun sistema publiko, unibertsal, doako (neurri handiengan) eta kalitate onekoa dauka. Halere, hori ez da oztopoa Nafarroako Arartekoak berezkoak dituen eginkizunez baliatuta, Foru Komunitateko zerbitzu publikoetan hobekuntzak proposatzeko, hain zuzen ere herritarren eskubideekin lotutakoak; besteak beste, osasuna babestea eta bizi kalitate eta banakako ongizate ahal diren handienak lortzeko bermeak.

Hirugarrena. Osasun Prestazioen Katalogoa arautzeko eta haren bermeetarako arau-tresna egokia Osasun Zerbitzuen Zorroa da.

Tresna horren garrantzia dela eta –izan ere kopuruaren eta kalitatearen aldetik edukiak finkatzen ditu osasun prestazioetarako, eta haiek direla-eta herritarrak eskubide subjektibo bat dauka–, erakunde honek uste du komenigarria dela, aipatu tresna, bere funtsezko alderdiei dagokienez, foru lege araututa egotea; hau da, gizarte zerbitzuak direla-eta Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Foru Legean egin den bezala. Izan ere, lege horren II. Tituluko III. Kapitulua Gizarte Zerbitzuen Zorroari buruzkoa da.

Ez dugu ahaztu behar plan estrategikoa, zeina Osasun Departamentua garatzen ari baita –bertan, Osasun Zerbitzuen Zorroaren garapena aurreikusten da–, ez dela loteslea eta aginduzkoa izan Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarentzat. Lege-arauak, ordea, lotesleak eta aginduzkoak dira. Defizit hori gainditzeko, Osasun Zerbitzuen Zorroa arautzeko foru lege bat onetsi beharko litzateke, haren bidez printzipio orokor batzuk finkatzeko, bai eta zorroaren gutxieneko eduki batzuk ere, alde kuantitatibotik eta kualitatibotik eta egituraren ikuspuntutik ere.

Laugarrena. Gaur egun, herritarrek eskatzen dute Osasun Zerbitzuen Zorroan sarturiko Prestazioen Katalogoan honako arloetan behar adinako mailak betetzea: efizientzia eta kalitate tekniko eta administratiboa, fidagarritasun zientifikoa, segurtasuna eta azkartasuna. Beraz, osasun administrazio on baten eginbeharra da, eta aldi berean herritarraren eskubidea, zerbitzuak kudeatzea eta prestazioak ematea behar adinako kalitatearekin, prozeduraren aldetik ez ezik, alde materialean ere. Kontua da egiturak modernizatzea, diagnosirako eta terapiarako metodoak antolatu eta gaurkotzea; eta herritarrei zerbitzuak ematen dizkiona den aldetik, kalitate progresiboko eredu bat ezartzea. Grabitate zentroa ez dago jada prestazio berriak sartzean, baizik eta jada badauden prestazioen estaldura erreala hobetzean.

Bosgarrena. Nafarroako Foru Komunitateak ez du oraindik ezarri Osasun Prestazioen Katalogoa eta Zerbitzuen Zorroa. Gaur egun, osasun zerbitzuei eta prestazioei buruzko guztia lege eta erregelamendu mailako arau gehiegitan barrena sakanatuta dago foru mailako ordenamenduan, eta garrantzitsuena dena, araupetzea, askotan, desfaturik dago.

Seigarrena. Foru Komunitateko Administrazioak azterlan zabal bat egin beharko luke gaur egun Nafarroako osasun sistema publikoan eskaintzen diren osasun prestazioei buruz, hura berrantolatzeko, arrazionalizatzeko, osatzeko eta gaurkotzeko. Bukaeran, Nafarroako Parlamentuak egokitzat jotzen baldin badu, Osasun Zerbitzuen Zorroa arautzeko foru lege bat onetsi beharko litzateke, eta Nafarroako Osasun Zerbitzuen Zorroa ezarriko lukeen foru dekretu bat egin beharko litzateke.

2. IRADOKIZUNA.

Aurreko guztia dela eta, erakunde honek, bera arautzen duen foru legearen arabera esleiturik dauzkan atribuzioez baliatuta, Osasun Departamentuari iradokitzen dio osasun prestazioen eta haien bermeen antolamendu juridiko-tekniko indardunaren berrazterketa sakona susta dezan, Nafarroako Foru Komunitateak kalitatezko osasun zerbitzuen zorro bat izan dezan.

Nafarroako Arartekoa: Francisco Javier Enériz Olaechea

